


XAGUXATAR

p a r k e a



Ezagutu Izarraitz inguruan dagoen xaguxatarren espezie-aniztasuna: haien ezaugarriak, ohiturak eta habitata. Jolastu “Xaguxatarren horman”, “Enbor bertikaleen lorategian”, “Labirintoan”, “Intsektuen hotelean”...



Zatoz ezagutzera!!!



2023

JARDUERAK

Urtarrila/Martxoa


Ekoetxea Azpeitia

Ekologia, ingurumen eta jasangarritasun baloreetan hezten



🕒 Astelehenetik ostiralera:
10:00-13:00 / 15:00-17:30
Larunbata: 10:00-13:30 / 16:00-18:30
Igandea/Domingo: 10:00-13:30
Jaiegunetan itxita, Aste Santuan izan ezik

🏠 Loiola auzoa, 1. 20730 Azpeitia
☎ 943-81 24 48
🌐 www.ekoetxea.eu/azpeitia
✉ info.azpeitia@ekoetxea.eu



FAMILIA EKINTZAK



ARTO TAILERRA

Noiz: urtarrilaren 15ean
Non: Ekoetxea Azpeitian
Ordua: 11:00etatik 12:30era
Familiei zuzendua

**Doakoa izango da. Plaza mugatuak
 Izen ematea urtarrilaren 13a baino lehen**

Tailer honetan ARTOA izango da protagonista. Gure eskuekin artaburuak aletuko ditugu, arto aleak nola ehotzen diren ikusi eta arto-irina eta ur epelarekin taloak egingo ditugu... gero etxean sukaldatu eta dastatzeko. Ze goxoak egongo diren! Gainera, gure protagonistari buruzko gauza ugari ikasiko ditugu: ba al zenekien arto landarearen hostoak alfonbrak egiteko erabiltzen direla?



SAGARRARI KOXKI!

Noiz: Urtarrilaren 29an
Non: Ekoetxea Azpeitian
Ordua: 10:30etik 12:30era
Familiei zuzendua

**Doakoa izango da. Plaza mugatuak
 Izen ematea urtarrilaren 27a baino lehen**

Tailer honetan, sagarra dolare bidez eraldatzeko aukera izango dugu zukua eta sagar patsa sortuz. Ondoren, sagar zukua dastatzeaz gain, sagar patsarekin pasteltxo batzuk egingo ditugu.



HOZKAILUA KOLOREZTATUZ

Noiz: Otsailaren 26an
Non: Ekoetxea Azpeitian
Ordua: 11:00etatik 12:30era
6-12 urte bitarteko umeei zuzendua

**Doakoa izango da. Plaza mugatuak
 Izen ematea otsailaren 24a baino lehen**

Imanak egingo ditugu gaitzat kolorea eta natura hartuta. Gure euskarria, harriak eta enbor zatitxoak izango dira. Margotu egingo ditugu eta iman bat itsatsiko diegu. Gure hozkailu edo beste lekuren batean ipini ditzakegu etxeko txokoak apainduz.



ZUHAITZ EGUNA

Noiz: Otsailaren 5ean
Non: Ekoetxea inguruko ibai ertzean
Ordua: 10:30etik 12:30era
Familiei zuzendua

Doakoa izango da

Bertaratutakoek zuhaitzak landatuko dituzte Ekoetxea inguruko ibai ertzeko eremuan. Ondoren hamaiketakoia egingo dugu Ekoetxean bertan.




LANDAREEN IRUDIAK SORTUKO DITUGU

Noiz: Martxoaren 12an
Non: Ekoetxea Azpeitian
Ordua: 10:00etatik 12:00etara
Familiei zuzendua

**Doakoa izango da. Plaza mugatuak
 Izen ematea martxoaren 10a baino lehen**

Tailer honetan landareak izango dira protagonistak. Kolore bakarreko argazki-prozedura erabiliz, kolore urdinean jatorrizko landare konposaketaren kopia negatiboa lortuko dugu paperean.



IGARAKO ERROTAKO ATE IREKIAK

Noiz: Martxoaren 25ean eta 26an
Non: Loiolako Santutegiaren ondoan, Sistiagako bidegurutzean

- Martxoaren 25ean, bi saio: 16:00etan eta 17:00etan
- Martxoaren 26an, bi saio: 11:00etan eta 12:00etan

Familiei zuzendua

Doakoa izango da

Igarako errotan bisita gidatuak eskainiko dira. Bertan, ur-errotaren funtzionamendua ezagutzeaz gain, arto-irina nola egiten den ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek.